



## **LAN HITZARMENEN MAHAIAREN LABURPENA**

Joan den ostiralean, ekinak 28, beste behin bildu zen Gizarte Ekimenezko Ikastetxeetako lan hitzarmeneko negoziatio mahaia. Antolakuntza kontuak zirela medio bi zatitan – bi mahai- banatzea erabaki zen.

Lehenengo zatia -14. mahaia- bi akordioaren ingurukoa izan zen:

Bata, murrizketak eragindako zorraren ingurukoa. Akordio partzial honen funtsezko puntuak dira:

- 2010eko ekainetik 2012 abendura arteko zorrari dagokio
- 2013ko urriaren 20a baino lehen ikastetxe guztiek eguneratuko dituzte gizarte segurantzari dagozkion kotizazio-baseak
- 3 zatitan ordainduko da zor osoa – Lehenengo 2013ko urriak 31 baino lehen, bigarrena 2014ko maiatzak 31 baino lehen, eta azkena 2015eko urtarrilak 31 baino lehen.
- Zabalik uzten du 2013ko balizko zorraren inguruan erreklamazioa egiteko aukera
- Demanda jarri duten langileen kasuan, haiek lortu badute -ikastetxearekin akordioaren edo epaiaren bitartez- zorra azkarrago kitatzea, aukera hori mantenduko dute.
- Akordioak eten egiten du aipatutako epean sortu diren lan sari aldeak erreklamatzeko epe legala.

Bigarren akordioa AZPko langileen %95ko parekidetasunaren inguruko akordio izan zen. Akordioan ezartzen dira, besteak beste, lan-mailen arteko baliokidetasunak, ekiparaziorako erreferentziako diru-kopurua eta 2011-12ri dagokion zorra.

Gehiengo sindikalak eta Patronalek bi akordioak sinatu zituzten. STEE-EILASek ez zuen sinatu akordiorik, bata zein bestea sakonago aztertzeko denbora eskatu zuen eta hurrengo bileran bere behin betiko jarrera erabakia hartuko du.

Bigarren zatia – 15. mahaia- hitzarmen berriaren ingurukoa izan zen. Ultraaktibitatearen inguruko ezbaia izan zen eta KE-k proposamen berri bat aurkeztu zuen. Proposamen honek 3 puntu ditu:

- negoziatio mahaiak areagotzea
- urriaren 31n akordiorik egon ezean PRECOra jotzea aldeak arbitrajepean jartzeko
- abenduaren 31erako ez bada lortu ez hitzarmenik ez laudorik, lan hitzarmena bertan behera geratuko litzateke erabat.

STEE-EILASek adierazi zuen lan hitzarmenak indarrean jarraitu beharko lukeela beste berri bat sinatu arte eta proposamen onartezina dela. Hala ere aztertuko duela sakonago eta saiatuko dela proposamenen bat egitea hurrengo bilerarako.

<b>ARABA:</b> Eulogio Serdan, 5	01012 Gasteiz	☎ 945 14 11 04	☎ 945 14 43 02	<a href="mailto:araba@stee-eilas.org">araba@stee-eilas.org</a>
<b>BIZKAIA:</b> Nikolas Alkorta, 3 (Zabalburu)	48003 Bilbao	☎ 944 10 02 98	☎ 944 10 13 60	<a href="mailto:bizkaia@stee-eilas.org">bizkaia@stee-eilas.org</a>
<b>GIPUZKOA:</b> Baso-txiki, 30-34 (atzealdea)	20015 Donostia	☎ 943 46 60 00	☎ 943 45 36 27	<a href="mailto:gipuzkoa@stee-eilas.org">gipuzkoa@stee-eilas.org</a>
<b>NAFARROA:</b> Descalzos, 72 (lonja)	31001 Iruñea	☎ 948 21 23 55	☎ 948 22 97 90	<a href="mailto:nafarroa@stee-eilas.org">nafarroa@stee-eilas.org</a>